

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3278

797/2020 EBAZPENA, uztailaren 15ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Ezkerralde-Enkarterri-Cruceseko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerente lanpostutik kentzen baita Santiago Rabanal Retolaza jauna, jubilazioagatik.

Osakidetzako zuzendari nagusiaren maiatzaren 15eko 1032/2015 Ebazpenaren bidez (2015eko ekainaren 12ko EHAAn), Ezkerralde-Enkarterri-Cruceseko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerente izendatu zen Santiago Rabanal Retolaza jauna.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusiak hauxe

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Santiago Rabanal Retolaza jauna Ezkerralde-Enkarterri-Cruceseko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerente lanpostutik kentzea jubilazioagatik, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2020ko abuztuaren 14ko lanaldia bukatzean izango du indarra.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Ezkerralde-Enkarterri-Cruceseko Erakunde Sanitario Integratuko zerbitzu-erakundeari Ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 15a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JUAN LUIS DIEGO CASALS.